

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2018ko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea**

Berantevillako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2018an ordaindu behar dutenen errolda behin-behineko onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau udaleko iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa uztailaren 14tik irailaren 14ra izango da, egun biak barne.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetako altak edo aldaketak Berantevillako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Berantevilla, 2018ko ekainaren 13a

*Alkatea*

*JUAN ANTONIO SANTAMARÍA FAJARDO*